11/2026 Irizpena

Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia irakasten dituzten ikastetxeetan eskola-lanaldi motak arautzen dituen Hezkuntzako kontseilariaren azaroaren 9ko 106/2023 Foru Agindua aldatzen duena.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2026ko irailaren 16an onetsia.

Palacio Ezpeleta C/ Mayor, nº 65 31001 Pamplona- Iruña Tfno: 848 42 87 87 consejo.escolar@navarra.es
CIF: Q3150038

Alicia Ruiz Oria
Lehendakaria
Sonia Soret Eguiluz
Idazkaritza
Jabier Ruiz Mirazo
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria HERRIKOA
Susana Moreno Merino
Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria
Pablo Arriazu Amat
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
Luis Calatayud Yuste
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
Enéritz González Fernández
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
Ignacio Mª Iraizoz Zubeldía
Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ ANEG/FERE
Juan Ignacio Dabán Royo
/Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria - FSIE-SEPNA
Eneka Maiz Ulaiar
Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria
Francisco Javier Martinez Domingo
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria.HERRIKOA
Sonia García Cifuentes
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
José Paulos Vázquez
/Ikastetxeetako Administrazioko eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria
Maite Kötter
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria. BRITILA
Josu Repáraz Leiza
Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria-Nafarroako Ikastolen Elkartea
Arantxa Ruiz Vidorreta
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria./STEILAS/
Eliseo Jimenez Carmona
Ikastetxe pribatuetako irakasleen

11/2026 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 16an egindako bilkuran, irizpena onetsi du, aldeko 12 botorekin, kontrako 0rekin eta 5 abstentziorekin, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan eskola-lanaldi motak arautzen dituen Hezkuntzako kontseilariaren azaroaren 9ko 106/2023 Foru Agindua aldatzen duen Foru Aginduaren proiektuari buruz.

ordezkaria/FETE-UGT. **Gil Sevillano González** Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria**.** **Ainara González Rubio** Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteen **Dña. Isidra Roldan Arróniz.** Aitortutako ospea duen pertsonalitatea	

1.- ARAU-AURREKARIAK

1. 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
2. 95/2022 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Haur Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituena.
3. 157/2022 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Lehen Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituena.
4. Ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.
5. Ekainaren 22ko 67/2022 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.
6. Otsailaren 25eko 14/2026 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Arte Heziketa, Hizkuntzak, Kirol, Helduen Hezkuntza edo Hezkuntza Berezia irakasten duten ikastetxe publikoen Antolaketa eta Funtzionamenduaren Erregelamendua arautzen duena.
7. 62/2022 Foru Agindua, abuztuaren 8koa, Hezkuntzako kontseilariarena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan kokatutako ikastetxeetan Haur Hezkuntzako etapari dagozkion irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituena.
8. 63/2022 Foru Agindua, abuztuaren 8koa, Hezkuntzako kontseilariarena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan dauden ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako etapari dagozkion

irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituena.

9. Azaroaren 9ko 106/2023 Foru Agindua, Hezkuntzako kontseilariarena, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetako eskola-lanaldi motak arautzen dituena.
10. 36/2026 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa, Hezkuntzako kontseilariarena, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoen Antolamendu eta Jarduera Araudia garatzen duena.

2.- ARAUAREN JUSTIFIKAZIOA

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 120.4 artikuluak honako hau xedatzen du: "ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, esperimentazioak, berrikuntza pedagogikoak, hezkuntza-programak, lan-planak, antolaketa-moduak, bizikidetza-arauak edo eskola-egutegia edo irakasgaien eskola-ordutegia zabaltzeko aukera izango dute, hezkuntza-administrazioek ezarritako baldintzetan eta aplikatzekoa den araudiak –lanekoa barne – ahalbidetzen dituen aukeren barruan, eta inola ere ez da diskriminaziorik eragingo, eta familiei ez zaie ekarpenik ezarriko, ezta hezkuntza-administrazioei eskakizunik ere". Hezkuntzako kontseilariaren azaroaren 9ko 106/2023 Foru Aginduak Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetako eskola-lanaldi motak arautzen ditu. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 000254/2024 zenbakiko epaian adierazten duenez, aipatutako azaroaren 9ko 106/2023 Foru Aginduaren 12.7, 13, 14.1 artikuluak eta hirugarren xedapen gehigarria ez datoz bat zuzenbidearekin, eta baliogabetzat jotzen ditu. Gauzak horrela, egokia da Hezkuntzako kontseilariaren azaroaren 9ko 106/2023 Foru Agindua aldatzea, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan eskola-lanaldi motak arautzen dituena.

3.- FORU AGINDUAREN ZIRRIBORROAREN DESKRIBAPENA

Foru aginduaren proiektu honen testua honela dago egituratuta:

Zioen azalpena eta hamaika artikulu eta azken xedapen bat.
• Lehenengo artikulua: 7.4 artikulua aldatzea, bizikidetza-erregelamendua aplikatzeari buruzkoa.

• Bigarren artikulua: aurretiko jarduketei buruzko 10. artikulua aldatzea.

• Hirugarren artikulua: 11. artikulua, prozedura hasteari buruzkoa, aldatzea.

• Laugarren artikulua: familiei eta legezko ordezkariei kontsulta egiteari buruzko 12. artikulua aldatzea.

• Bosgarren artikulua: irakasleen klaustroari kontsulta egiteari buruzko 13. artikulua aldatzea.

• Seigarren artikulua: 14. artikulua aldatzea, Eskola Kontseiluak onartzeari buruzkoa.
• Zazpigarren artikulua: 15.2 artikulua aldatzea.

• Zortzigarren artikulua: 19. artikuluaren aldaketa, Ikuskaritza Zerbitzuak egindako ikuskapenarena.

• Bederatzigarren artikulua: hirugarren xedapen gehigarria ezabatzea.

• Hamargarren artikulua: bosgarren xedapen gehigarria aldatzea.

• Hamaikagarren artikulua: zazpigarren xedapen gehigarria aldatzea.

4.- FORU DEKRETU PROIEKTUAREN TESTUARI BURUZKO BESTE GAI BATZUK

Proiektuarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu dira: memoria arauemailea, ekonomikoa, justifikaziozkoa, antolamenduzkoa, generoaren araberako eraginari buruzko txostena, sexu-orientazioagatiko eraginari buruzkoa, irisgarritasunaren eta desgaitasunaren gaineko eraginari buruzkoa, administrazio-kargei buruzko txostena, klima-inpaktuari buruzkoa eta haur eta nerabeen gaineko eraginari buruzko txostena.

5. IRADOKIZUNAK ETA OHARRAK

Nafarroako Eskola Kontseiluak egokitzat jotzen du Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan eskola-lanaldi motak arautzen dituen Hezkuntzako kontseilariaren azaroaren 9ko 106/2023 Foru Agindua aldatzen duen Foru Aginduaren proposamena, eta, ondorioz, hura izapidetzearen aldeko irizpena ematen du, eta bozketa horren emaitza da, aldeko 12 botorekin, kontrako 0rekin eta 5 abstentziorekin.

Pamplona, 17 de septiembre de 2026

Lehendakaria
Alicia Ruiz Oria

Idazkaria
Sonia Soret Eguiluz

GO. SR. NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA